

HIRUGARREN ATALA

ZERGA-KUDEAKETAKO JARDUERAK ETA PROZEDURAK

37. artikulua.—Tasen kitapena

1. Ordenantza Fiskal honetan araupetutako Tasen kitapenak artikuluko honen ondorengo idatz-zatietan aurreikusten diren berezitasunen menpekoak izango dira.

a) Zenbatespen-metodoan auzia dakartenak, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren zehazten den bezala. Behin-behinekokoak edo konturakoak izango dira, kontagailuetako benetako irakurketak egin eta hurrengo aldietako emaitzen arabera, preskribatzen ez diren bitartean.

2. Artikulu honen aurreko paragrafoan zehaztutakoari kalterik egin gabe, eta, oro har, kitapenak zerga-oinarriaren aldaketen menpe egongo dira.

3. Kopuruak, emariak edo zerga-oinarri bezala zehaztutako izaera finkoko beste edozein magnitudek edo denbora-unitateak aldeztu aurretik zehaztutako zenbaterako eragindako zerbitzuak kontratatuz gero, horren ondorioz sortutako tasen aurreiazko kitapena gauzatu da, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren aurreikusitako baldintzetan.

38. artikulua.—Baterako kudeaketa

Partzuegoak Ordenantza Fiskal honetan araupetutako tasa desberdinak batera kitatu eta bildu ahal izango ditu, betiere, zergaldiek bat egiten badute. Horretarako, guztiak jasoko dituen agiri-euskarri bakarra erabiliko du, azalpen bakoitzaren oinarriak eta tarifak bereizi beharko dituen arren. Izan ere, horien kitapenak banan-banan egingo dira, eta kontzeptu bakoitzari dagozkion kuotak bereizita agertu beharko dira. Kuota horien batuketak agiri bakarraren bidez ordainarazi beharreko kuota bategina zehaztuko du.

39. artikulua.—Fakturazioa erabiltzaileari

Partzuegoak kapital gutzitza porpiodun Merkataritza Sozietate baten esku utzi ahal izango du hornikuntza edo/eta saneamendu zerbitzuen erabiltzaileen fakturazioa, unean-unean indarrean dauden tarifa eta zergak ezarrita. Era berean, Ordenantza Fiskal honetan ezarritako baldintzetan eta epeetarako egingo da fakturazioa.

40. artikulua.—Fakturazioa familia ugarietara eta ongintzako zentrotara

1. Laurogeita hamar egunean behin 38 m³ gainditzen dituzten nekazaritza jarduerari edo familia ugarietara etxeko kontsumoak tarifaren epigrafean 18 eta 38 m³ tartean ezarritako prezioan fakturatuko dira.

Artikulu honetan jasotakoa aplikatzeko, nekazaritza jardueran dabilzala edo familia ugaria osatzen dutela urtero egiaztatuko beharko dute interesdunek.

2. Ongintzako zentrotara jarduerara nagusia pertsonen bizitegia izatea denean, Udaletxei ezarritako prezioan fakturatu da.

Tarifa hori aplikatzeko, interesdunek erakundearen izaera benefikoa ziurtatu beharko dute, bai eta erakundearen jarduerara pertsonen bizitegia izatea dela egiaztatuko ere.

41. artikulua.—Betebehar formalak

Tasak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek, Ordenantza Fiskal honetako III. kapituluaren zehazten diren bezala, Zerbitzua araupetzen duen Ordenantzaren aurreikusitako baldintzetan eta ezarri daitezkeen bestelako xedapenen arabera burutu behar dituzte zerbitzuetako alta eta baja aitortzen. Horrez gain, izaera formaleko datuei buruzko edozein aldaketaren berri eman beharko dute, ezinbestekoak izan daitezkeelako Ordenantza Fiskal honen helburu diren tasak kudeatu, kitatu eta biltzeko. Era berean, euren gain hartuko dituzte hutsegiteak edo gaizki jakinarazteak eragindako ondorioak.

SECCIÓN TERCERA

ACTUACIONES Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN TRIBUTARIA

Artículo 37.—Liquidación de las tasas

1. Las liquidaciones de las Tasas reguladas en la presente Ordenanza Fiscal estarán sujetas a las particularidades que se prevén en los apartados siguientes de este artículo.

a) Las que traen causa en el método de estimación, tal y como queda definido en la Ordenanza reguladora del Servicio, las cuáles tendrán la consideración de provisionales o a cuenta, de lo que resulte en los períodos siguientes en que se obtengan las lecturas reales de los contadores.

2. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado anterior de este artículo, y con carácter general, las liquidaciones estarán sometidas a las variaciones de la base imponible que procedan para los supuestos de error o avería de los aparatos de medida, tal y como se prevé en la Ordenanza reguladora del Servicio.

3. En los supuestos de contratación de servicios por un volumen, caudal o cualquier otra magnitud definida como base imponible, de carácter fijo, o por una cantidad predeterminada por unidad de tiempo, en los términos previstos en la Ordenanza reguladora del Servicio, se llevará a cabo la liquidación anticipada de las tasas devengadas con ocasión de los mismos.

Artículo 38.—Gestión conjunta

El Consorcio podrá llevar a cabo la liquidación y recaudación conjunta de las diferentes tasas reguladas en la presente Ordenanza Fiscal cuyos períodos impositivos coincidan, utilizando a tal efecto un único soporte documental que integre a todas ellas, si bien diferenciando las bases y tarifas de cada concepto, cuyas liquidaciones se efectuarán individualizadamente, debiendo constar por separado las cuotas relativas a cada concepto, cuya suma determinará la cuota refundida para su exacción mediante documento único.

Artículo 39.—Facturación al usuario

El Consorcio podrá encomendar a una Sociedad Mercantil de capital íntegramente propio, la facturación a los usuarios de los servicios de abastecimiento y/o saneamiento, aplicando las tarifas y los tributos vigentes en cada momento, en las condiciones y por los períodos establecidos en la presente Ordenanza Fiscal.

Artículo 40.—Facturación a familias numerosas y centros benéficos

1. Los consumos domésticos de las familias numerosas y actividades agrícolas que excedan de 38 m³ cada noventa días se facturarán al precio establecido para el intervalo de 18 a 38 m³ de su epígrafe tarifario.

Los interesados deberán instar lo contemplado en el presente artículo acreditando anualmente el cumplimiento de su condición de familias numerosas.

2. Los consumos efectuados por centros benéficos —cuya actividad principal sea la de residencia de personas— se facturarán al precio establecido para Ayuntamientos.

La aplicación de dicha tarifa quedará supeditada a la acreditación anual, por parte del interesado, del carácter benéfico de la entidad y de que su actividad sea agrícola o la de residencia de personas.

Artículo 41.—Obligaciones formales

Los sujetos pasivos obligados al pago de las tasas tal y como se definen en el Capítulo III de esta Ordenanza Fiscal, además de llevar a cabo las correspondientes declaraciones de alta y baja en los servicios en los términos previstos en la Ordenanza reguladora del Servicio y de cualesquiera otras disposiciones que resulten de aplicación, deberán dar cuenta de cualquier variación relativa a los datos de orden formal con relevancia para la gestión, liquidación y recaudación de las tasas objeto de la presente Ordenanza Fiscal, siendo de su responsabilidad los efectos que se deduzcan de su omisión o de su defectuosa comunicación.